

AKTA

UDALA ERATZEKO ETA ALKATEA AUKERATZEKO OSOKO BILKURA

Akta zenb.	13/03
Organoa	Anoetako Udala
Batzarra	Lehenengoa
Tokia	Udaletxeko areto nagusia
Eguna	2003ko Ekainak 14
Deialdia	Lehenengoa
Hasiera ordua	Goizeko bederatziak
Amaiera ordua	Goizeko bederatziak eta hoge

Bertaratutakoak:

1. Fidel Azpiroz Arrillaga
2. Jose Ignacio Otermin
3. Silvia Dos Santos Leite
4. M^a Carmen Egurza Salaverria
5. Juan Jose Martin Zubelzu
6. M^a Nieves Marcos Martinez
7. Mikel Zubillaga Galarraga
8. Kepa de la Iglesia Sanchez
9. Jesus M^a Arsuaga Lizaso

AZTERGAIK:

1. Adineko mahaia eratzea.
2. Udala eratzea.
3. Alkatea aukeratzea.

ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK

1.- Adineko mahaia eratzea

Ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195. artikulua dioenari jarraituz, zinegotzi-egiaztagutunak Idazkaritza Orokorrean jaso ondoren,

bertaratutako zinegotzietan zein den gazteena eta zein zaharrena aztertu da, bi zinegotzi horiek adineko mahaia osa dezaten, udal-idazkariarekin batera.

Erabakia

Adineko mahaia era honetan osatzea:

Zinegotzirik zaharrena: Fidel Azpiroz Arrillaga

Zinegotzirik gazteena: Silvia Dos Santos Leite

Idazkaria: Garikoitz Lekuona Izeta

2.- Udala eratzea

Adineko mahaiak zinegotzi-egiaztagutunak aztertu ditu, bai eta eskualdeko Hauteskunde batzordeak udaletxera bidalitako ziurtagiriak ere, zinegotzi-egiaztagutunak eta ziurtagiriak bat datozela baieztatzeko.

Horren ondotik, zinegotziek, legeak hala behartzen duelako, konstituzioa beteko dutela zin egin edo hitza eman dute.

Erabakia

Zinegotzien gehiengo osoa osoko bilkuran dagoela, adineko mahaiak Udala eratutzat jo du. Hona hemen zinegotzien zerrenda:

- 1- Fidel Azpiroz Arrillaga
- 2- Jose Ignacio Otermin
- 3- Silvia Dos Santos Leite
- 4- M^a Carmen Egurza Salaverria
- 5- Juan Jose Martin Zubelzu
- 6- M^a Nieves Marcos Martinez
- 7- Mikel Zubillaga Galarraga
- 8- Kepa de la Iglesia Sanchez
- 9- Jesus M^a Arsuaga Lizaso

Jarraian, idazkariak hiru agiri hauek aurkeztu dizkio Udalbatzari, zinegotziek azter ditzaten: a) kutzako kontaketaren agiria; b) Udalak dirutan nahiz baloretan dituen izakinen egiaztagiriak; eta c) udal-ondarearen inbentarioa.

3.- Alkatea aukeratzea

Ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 196. artikuluari jarraiturik, adineko mahaia alkatea aukeratzeko baldintzak gogorarazi ditu:

- *“Zinegotzi diren zerrendaburuak dira hautaga”*.
- *“Lehen bozketan, zinegotzi guztien (bertaratu gabeak barne) gehiengo osoa lortzen duena izango da alkate”*.
- *“Horrela gertatzen ez bada, udal-hauteskundeetan gehien bozkatutako zerrendako buru den zinegotzia izango da alkate”*.
- *“Gehien bozkatutako zerrenda bat baino gehiago bada, zozketaz ateratzen den zerrendako buru den zinegotzia izango da alkate”*.

Horrela bada, Fidel Azpiroz Arrillaga zinegotzia Eusko Alderdi Jeltzalea/Eusko Alkartasuna koalizioko zerrendaburu izanik, bozketari ekin zaio, eta hona lortutako botoak:

Fidel Azpiroz Arrillaga zinegotziak 9 boto.

Erabakia

Bozketak erakusten duenez, Fidel Azpiroz Arrillaga da alkate.

Ondoren, Fidel Azpiroz Arrillagak onartu egin du alkate izatea. Horrela, bada, Udalbatza aurrean duela, agindu ere agindu du kargu hori beteko duela, kargu horrek berekin dakartzan ahalmen, eskubide eta betebeharrak guztiekin. Horrenbestez, Fidel Azpiroz Arrillagak hartu egin du alkate-kargua.

Jarraian, alkate berriak Mikel Errazkin eta Oihane Perez Anoetako hiritarrei eman die hitza.

Hona Mikel Errazkinek esana:

" HERRIAREN BORONDATEA ORDEZKATUA IZATEKO PROPOSAMENA

Esker ona babesa eman diguten 409 herritarrei

Lehenik eta behin eskerrak eman nahi dizkiegu Anoetarrok Auzolanean taldeari beren babesa eskaini dieten 409 anoetarrei eta lau urteetan anoetar guztien interesak defendatzen jarraitu dezagun, konfiantza eskaini digutenei. Horren erantzukizuna guregan hartzen dugu eta hutsik ez egitea espero dugu.

Hauteskundeetan baldintza desegokitan lehiatu behar izan dugu; demokrazia urratua

Albo batean utzi gaituzten hauteskundeak izan dira eta baldintza desegokitan lehiatu behar izan dugu. Hala eta guztiz ere lorturiko emaitzak onak izan dira. Gutxieneko baldintza demokratikoak beteak izango balira, ziur gaude emaitza hobekien lortuko genituela.

Nahiz eta emaitza hauek hauteskunde demokratikoei dagozkienak ez direla onartu, partidu politikoei eskatzen diegu herri borondatea eta gure kasuan **409 herritarren borondatea errespetatu dezatela, eskatzeko zilegitasun osoa dugu eta.** Anoetarrok Auzolanean **taldeko 4 zinegotzi hautatu dituzte herritarrek.**

ANOETAKO PNV-EAri ESKAERA

- 1.- **Hauteskunde emaitzak eta erregela demokratikoak errespetatu eta horien arabera guri dagokigun ordezkariak bereganatu ez dezaten eskatzen dugu.**
- 2.- Udal erabakietan botoen arabera ordezkariak eskatzen dugu. Irtenbide legalak badaude, aurkeztu ditugu, eta **benetako soluzio bat lortzeko elkarlanerako deia luzatzen dugu**
- 3.- Alderdi hauetako zerrendako azken lau ordezkarien borondateari apelatu nahi diogu. Baita galdetu ere, **ea lege bidegabe bat dela medio, 409 anoetarren borondatea ukatuaz, ez dagozkien 4 zinegotzi karguak hartuko dituzten**

ANOETARROK AUZOLANEAN TALDEAREN PROPOSAMENA

Gure taldea bozkatu duten 409 herritarrak Anoetako Udalean ordezkatuak izan daitezzen aukera legalak eta praktikan jartzeko errazak direnak badaude, borondatea eskatzen dugu. Aukera ezberdinak egonik hauetaz hitz egiteko prest gaude. Zera proposatzen dugu **herritarrek aukeratu ez dituzten PNV-EA-ko 4 ordezkariak dimititzea eta euren ordezkari baten bidez guri dagozkigun lau zinegotzi izendatzea.**

Erregela demokratikoak bermatu ez diren hauteskunde hauek ez baditugu onartzen ere; herri borondateak agindutakoa beteko dugu, ordezkaria izateko aukeratua izan den herritarrok dugun betebeharrak etiko, politiko eta morala delako. **Mandelarena** den baino gurea egiten dugun esaldi batek dioen moduan: **"lege bat justua ez dela jakinda, lege hau betetzen duena ez da gizaki duina".**

Hona Oihane Perez-ek esana:

Azkenik,
 alkateak:"....."

"

Bilkura amaituta, agiri hau egin dut lehendakariaren oniritziarekin, eztabaidatu eta erabakitakoa jasotzeko.

Tokia/Data: Anoetan, 2003ko Ekainaren 14ean.

IDAZKARIA

ALKATEA